

## han-hemen

### Manfredi: «Egun koliseoak bete egingo lirateke gladiadoreak hiltzen ikusteko»

Italiako idazle eta arkeologo Valerio Manfredik *Quimaira* bere azken liburua aurkeztu zuen atzo. «Oraindik ere koliseoak bete egingo lirateke gladiadoreak hiltzen ikusteko», esan zuen Manfredik aurkezpenean. Idazlearen ustez, jendeak atsegin du historia, «globalizatutako mundu batean, bakoitzak bere jatorriarekin harremana izan nahi duelako». Manfredi argia da: «Oroitzapenik gabe ez dago izaerarik».

### Shakira: «Ilargira joatea lortuko dut; apustu egin nahi?»

Shakira abeslari ospetsuak kantari bihurtuta amets bat bete zuela adierazi du behin baino gehiagotan. Orain, berriz, beste amets bat bete nahi du Kolonbiako abeslariak: Ilargira joatea. «Lau urte nituela hasi nintzen dantzan, eta berehala ohartu nintzen kantaria eta musikagilea izan nahi nuela, eta Ilargira joan. Lehenengo helburua lortu dut; beraz, noizbait Ilargi-



JUAN HERRERO / EFE

## Nepalgo Sanisha Gurung salbu da ebakuntzaren ostean

Sanisha Gurung haur nepaldarrak gaitz larria zuen bihotzean, eta Donostiara ekarri zuten joan den astean. Gallo eta Martinez Ubago medikuek egindako ebakuntzaren ostean, Sanisha salbu dago.



DOUG PIZAC / AP

### Robert Urich aktorea zendu da, urteetan minbiziaren aurka borrokatu ondoren

Ameriketako Estatu Batuetako aktore Robert Urich joan den ostegunean zendu zen, Los Angelesen (AEB), minbiziak jota. Urichek ospea lortu zuen 90eko hamarkadan egindako zenbait telesaili esker; besteak beste, *Harrelson's men* telesailari esker. Urichek 55 urte zituen. Duela lau urte sortu zitzaion minbizia.


ra joango naiz. Apustu egin nahi?», esan zuen Shakirak.

### 'The Sun' egunkariak Camilla Parkerrekin ezkontzeko eskatu dio Charles printzeari

Ingalaterrako *The Sun* egunkariak Charles prin-

tzeari eta Camilla Parker Bowles ezkontzea nahi du. Halaxe adierazi zion atzoko alean Galesko Charles printzeari. «Biztanle gehien oniritzia dutenez, Galesko printzea eta Camilla Parker Bowles ezkontzeko garaia heldu da», idatzi zuten egunkariko editorialean.

## hilberriak



*Bibotz, buztinezko Bibotz,  
Etxe ttiki bat zara,  
Abula, hauskorra, lau gelatako;  
Bibotz, jausitako Bibotz,  
Ari zara intzirika,  
kexu zara, negar zara, oi Bibotz...*

Maite zaitugu AMAMA LOREA.

**Lorea Badiola Badiola**

LUX, JUAN, LOREA, XABIER, ITZIAR, AMAIA, LOREA, IRENE, MARIA, LAURA, MAITE eta KARLOTA

2002ko apirilaren 17an



(BBVAko *El Campo* aldizkari zuzendari ohia)

*Galdakaon bil zen, 2002ko apirilaren 16an, 71 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena bartu ondoren.*

– Goian bego –

HERRIA, EUSKARA, BASOAK...  
ERAMAN DITUZU BARNEAN  
GEUK ERE ZU.  
ETXEKOAK

Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete, eta, arren, etor zaitzela GAUR, apirilaren 17a, asteazkenarekin, arratsaldeko ZAZPIETAN Galdakaoko Santa Maria parroki elizan gorpua bertan dela egingo diren hiletan elizkizunetara. Aldez aurretik, mila esker.

**Sabino Larrea Ereño**  
JAUNA

2002ko apirilaren 17an



(*Premi San Pedro-ren aitita*)

*Izar berri bat  
piztutzeroa doa  
Euskalerriko  
zeru gainera.*

**ARANJUEZEKO EUSKAL PRESO POLITIKOAK**


2002ko apirilaren 17an

# E S K E L A K

Gaueko 9ak arte hartzen dira

(0034) 943 300 222





Atzo bil zen, 81 urte zituela,  
**ELIZAKOAK eta AITA SANTUAREN Bedeinkapena bartu ondotik.**

– Goian bego –

Haren emaztea: Conchita Mujika; seme-alabak: Arantxa eta Jabier Arraztoa, Joxe Migel, Patxi eta Nerea Gabikagojeaskoa, Antton eta Irene Matxiarena; bilobak: Maite, Xabier eta Beñat, Andoni, Aitor eta Irati; anai-arrebak: Francisca, Ignacio, Rosa eta Benito Lasaga; koinatu-koinatak: M<sup>a</sup> Angeles, Miguel eta M<sup>a</sup> Nieves Elgorriaga, Jose Antonio eta Isabel Tapia, Xanti eta Visi Zozaia; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR, ASTEAZKENA, apirilak 17, arratsaldeko SEIETAN, BERAKO SAN ESTEBAN parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, MILA ESKER.

OHARRA: Gorpu laguntza hilerrira hiletan ondoren egingo da.  
Helbidea: KATALINEKO-BORDA.

**Antonio Lazkanotegi Arribillaga**  
JAUNA

Beran, 2002ko apirilaren 17an